

ESKOLA-BARATZEKO LANTEGIAK



Jarduera baratzean

Hezkuntza-etapa

Lehen Hezkuntzako 6. maila

Gidatutako jarduera baratze komunitarioan

Baratze ekologiko bat gure auzoan

Ikasgelan ondoren egiteko jarduera (hautazkoa)

Gogoeta eta eztabaidarako gunea

Baratze ekologiko bat gure auzoan

Helburuak

- Baratzeraz eta bertan hazten ari diren landareetara hurbiltzea.
- Kontsumo ekologikoa zertan datzan jakitea.
- Gogoeta egitea jaten ditugun elikagaien jatorriari buruz.

Iraupena

Lantegiaren garapena **2 h**

Ikasgelan ondoren egiteko jarduera (hautazkoa) 1-2 h

Garapena

Aurkezpena

Biribilean jarriko gara baratzearen barnean, lantegia eta gunea aurkezteko.

Non gaude?

“Baratze ekologiko komunitario batean gaude. Horrek esan nahi du auzokide talde batek landatzen duela, beraien artean antolatuta eta ados jarrita. Eta hori ingurumenarekin eta Lurraren zein pertsonen osasunarekin begirunez jokaturik egiten da. Ahalik eta gutxien kutsatzen saiatuta.”

Zer egiten da?, zertarako balio du hemen baratze batek?

Baratzeko zein jaki jaten ditugu?

Aurreko galderari lotuz, ideia-jasa bat egingen dugu eta banan-banan aipatuko ditugu ortuariak, barazkiak edo baratze zein alor batean landatzen edo ekoizten diren bestelako jakiak.

Paper handi batean idatziko ditugu bi zutabetan banatuta. Ezkerrekoan, jakiaren izena jarriko dugu.

Behin hori amaituta, landare bakoitzari buruz galdetuko dugu: **zer atal jaten dugu?** (sustraia, zurtoina, hostoak, fruitua, haziak). Ondoa idatziko dugu, eskuineko zutabean.

Lantegiaren aurkezpena

Lantegian, galdera honi erantzuten saiatuko gara: **Zer da nekazaritza ekologikoa?**

Horretarako, ikerketa-jarduera batzuk egin eta aurkikuntzak fitxa batean idatziko ditugu. Fitxa bat atxikita doa baliabide gehigarrien atalean, **1. eranskinean**.

Taldean arituko gara.

Taldekatzeko dinamika

Txartel batzuetan aprobe txamendu ezberdineko zenbait produktu begetalen argazkiak eramanen ditugu:

- Sustraiak eta erraboilak: azenarioa, errefautxo, erremolatxa, arbia, baratxuria, tipula...
- Hostoak eta zurtoinak: aza, uraza, zerba, porrua, eskarola, kardua...
- Fruituak: kuintxo, luzokerra, tomatea, alberjina, leka, marrubia,...
- Haziak: babarrun lehorrak, ilarrak, babak, ekilore-pipitak, artoa, dilistak...

Pertsona bakoitzari txartel bana emanen diogu.

Zein taldetakoa den asmatu beharko dute eta komunean zer duten jakin. Azkenik, lau talde osatuko dira.

Ez badute garbi zer duten komunean, tankera honetako pistaren bat ematen ahal diegu: *“talde berean atal bera jangarri duten landareak egonen dira; esaterako, sustraia...”*

Errazago edo arinago egitekotan, esaten ahal diegu zer izen duten eratu behar dituzten taldeek.

Amaieran, 4 talde egonen dira eraturik: sustraiak, zurtoinak, fruituak eta haziak.

Erronda bat eginen da esateko zer labore diren talde bakoitzekoak.

Zer da nekazaritza ekologikoa?

Sarrera labur bat eginen dugu:

“Baratzea ekosistema bat da, pertsonak elikagaiak eskuratzeko baliatzen dutena.

Oroitzen al dira zer den ekosistema bat?

“Toki bat da, klima eta lurzoru jakin bat dditu, eta bertan hainbat izaki bizidun bizi eta erlazionatzen dira bai haien artean bai ingurumenarekin”.

Ez da, baina, elikagaien fabrika bat.

Nekazaritzaren jarduna zenbait faktorek baldintzatzen dute, hala nola inguruneak, bertan bizi diren organismoek, eta natura-baliabideek (lurzorua, ura...).

Nekazaritza ekologikoan, bereziki erreparatzen zaie ekosistemaren zaintzari eta kontserbazioari.

Zertan datza baratzea modu ekologikoan lantzea?

Galdera bota eta utziko diegu libreki eman ditzatela beren usteak.

Ideiak agertu ahala, papelografo batean idazten ahal ditugu.

Zer aurkituko dugu baratze ekologiko batean?

Talde bakoitzari fitxa bana emanen diogu, jarduera egin ahala bete dezaten.

• **Baratzean laboreak identifikatzea**

Talde bakoitzak ezagutzen dituen hiru barazki edo ortuari bilatu behar ditu baratzean, hasieran aipatu ditugun artean.

Horrez gain, zenbat labore mota topatzen dituzten idatzi beharko dute.

Fitxa bete eta elkargunera itzuliko dira bateratze-lana egiteko.

Paseo bat ematen dugun bitartean, landareak identifikatu eta talde osoari erakutsiko dizkiote. ***Zer atal jaten dugu?, sustraia, zurtoina, hostoak, lorea, fruitua edo haziak?***

Labore mota asko edo gutxi daude?

Espezie batzuk aldi berean landatzea estrategia bat da aniztasuna handitzeko eta izurrien edo gaixotasunen arriskuak apaltzeko.

- **Landare laguntzaileak**

Biribilean eseriko gara, galdera batzuk egiteko.

Laboreez gain, **zer beste landare topa ditzakegu?, zergatik uste duzu daudela hor?, zergatik dira interesgarriak baratze ekologikoan?, zer onura dakarte?**

Laboreekin batera hazten diren landare horiek lagungarri dira izurriak eta gaixotasunak kontrolatzeko eta polinizatzeko. Izan ere, jaten ditugun laboreetako askok polinizatzaileak behar dituzte fruitua emateko.

Denbora mugatua (5') emanen diegu taldeka paseo bat eman dezaten, ea espezieren bat ezagutzen duten. Izenak fitxa batean idatziko dituzte.

Berriz bilduko gara, idatzitakoak aipatzeko.

- **Animaliak lagun**

Taldeka baratzeko intsektuak identifikatuko dituzte.

Horretarako, bi lupa banatuko ditugu talde bakoitzeko eta talde bakoitzari eremu mugatu bat esleituko diegu, esaterako, baratze-zapalda bat.

Intsektu motak zenbatuko dituzte, eta mota bakoitzeko ale-kopurua, eta fitxan idatziko dituzte datuok.

Denbora mugatua emanen diegu (10'-15').

Hezitzailea taldez talde arituko da zer topatu duten ikusten eta identifikatzen laguntzen.

Gero denok elkartuko gara, bateratze-lana egiteko.

Zenbat intsektu mota topatu dituzte? Horietako batzuen izenak emanen dituzte.

“Onak” ala “txarrak” dira?, zer funtzio betetzen dituzte?

Baratzea gune bioanitza da. Zenbat eta animalia- zein landare-espezie gehiago, orduan eta oreka handiagoa baratzean. Osasuntsuago egonen da.

Gure aliatuak diren intsektuei lagungarriak edo onuragarriak deitzen diegu.

Zer egiten dugu baratzean gera daitezen?

Nekazaritza ekologikoan, saiatzan gara ez hiltzen. Ez diegu botatzen kalterik eragiten ahal dien produkturik, babesak eta jana ematen dizkiegu, baratzean gera daitezen.

Ikusi al dute baratzean haien babesleku izan daitekeen elementurik edo egiturarik?

Idea-jasa gisa banan-banan aipatuko dituzte.

Bururatzan al zaie intsektuak izan gabe baratzea osasuntsu atxikitzen laguntzen ahal duten bestelako animaliarik?

- **Ekolokalizazioaren jolasa**

Saguzarrak ditugu aliatuetako bat baratzean, horietako batzuk intsektuez elikatzen direlako.

Jarduera hau egiteko, esparru ireki, zabal eta oztoporik gabea aukeratuko dugu. Ikasleak bi taldetan banatuko ditugu.

Ditugun lau taldeak binaka jarrita egiten ahal dugu.

Erdiak saguzarrak izanen dira, eta beste erdiak, sitsak. Sitsek zirkunferentzia bat osatuko dute eta erdian saguzarrak jarriko dira.

Jolasean, saguzarrek sitsak “harrapatu” beharko dituzte, ekolokalizazioaz baliatuta. Bidenabar, gogora ekartzen ahal dugu zertan datzan kontzeptu hori, eta komentatu nola orientatzen diren saguzarrak espazioan.

Horretarako, zapi bat edo tankerako zerbait emanen diegu saguzarrei, begiak estaltzeko. Sitsak lokalizatzeke, saguzarrek soinu bat egiten dute, “MUR-MUR”; horrek sitsekin topo egitean oihartzuna sortuko du eta sitsek “MAR-MAR” erantzunen dute.

Sitsek biribila irekitzen ahalko dute baina sakabanatu gabe. Pertsona laguntzaileek begiak estalita mugitzen diren ikasleei erreparatuko diete bereziki, istripurik gerta ez dadin.

Saguzarrek sitsak harrapatutakoan, rolak aldatu eta jolasa errepikatuko dugu.

- **Ongarritze organikoa: konposta**

Sarrera labur bat eginen dugu, baratze ekologikoko ongarrizeari buruz, eta gogora ekarriko dugu materiak naturan egiten duen zikloa.

***Zer gertatzen da baso batean hiltzen diren izaki bizidunekin, landare, hosto eta animaliekin?**
Baratzean, lurzoruari itzuliko dizkiogu erauzitako mantenugaiak, materia organikoa bihurtuta.*

Zerekin ongarritzen dute baratze hau?

Konpostagailua erakutsiko diegu, haren funtzionamendua labur azalduta, eta proposatuko diegu konpostaren artean bilatzeko deskonposatzen ari diren bost material ezberdin, makila edo aitzur txiki batez lagunduta, eta materialen izenak idazteko.

Denbora mugatua izanen dute horretarako (10').

Lupak banatuko dizkiegu eta behaketan arituko dira 5 minutuz konpostagailuan. Topatutako animalia kopurua idatziko dute.

Bateratze-lanean, zer topatu duten esan eta taldeari erakutsiko diote.

Zer beste modu bururatzen zaie baratze batean lurzoruari materia organikoa gehitzeko?

Zer da nekazaritza ekologikoa?

Berriz ere eginen dugu galdera ea lantegiaren ondoren zer ideia berri sortu diren. Lehendik hartutako oharrei gehituko dizkiegu.

Gune ireki bat utziko dugu hausnarketa egiteko.

Ba al dago deigarri zaien edo komentatu nahi duten beste ezer?

Baratzeko lanak: belarra erauztea

Amaitzeko, baratzea mantentzeko beharrezkoa den lanen bat eginen dugu.

Esaterako, ertzetako belarrak kentzea entretenigarria izan daiteke eta ez ditu laboreak arriskuan jartzen. Horretarako, hezitzaileek lehenago hitz eginen dute baratzezainekin jarduera adosteko.

Posible bada, lana izanen da belar arrotzak erauztea, horretarako lanabes egokia erabiliz. Taldeka arituko dira, eta talde bakoitzari gune jakin bat esleituko zaio. Behin belarrak erauzita, puskatan zatitu eta konpostagailura botako dituzte, materiaren zikloa ixteko.

Jarduera hau oso interesgarria da, ikasleek lurra eta jakiak ekoizteko egin behar den lana ezagutzeko, baina arreta handiz egin behar da eta ikasleei lagundu, gunea zaintzeko eta narriadurak edo istripuak saihesteko.

- ***Ikasgelan ondoren egiteko jarduera (hautazkoa)***

Eztabaida eta gogoetarako gunea

Ikus-entzunezko materialen bat erabiliko dugu, eztabaida eta gogoeta gune bat abiatzeko, jakien jatorriari eta ekoizpen-moduari buruz.

Proposamen batzuk atxikita doaz baliabide gehigarrien atalean, **2. eranskinean**.

Halaber, **3. eranskinean**, erakusketa bat jaso da, lanaren lagungarri.

Materialak

- Txartelak, barazkien argazkiekin.
- Papelografoak.
- Errotuladoreak.
- Fitxa inprimatuak, taldeka betetzeko.
- Musu-mozorroak edo zapiak, gelako erdientzat.
- Aitzur txikiak.
- Kapazuak.
- Guraizeak.

Jarduera osagarriak

1. jarduera: Elikagaien jatorria

Zenbait elikagai alderatuko ditugu: haien jatorria, gure plateretara iristeko egiten duten bidea eta horiek ekoizteko modua.

Taldeka jarriko gara, biribil batean, eta mapamundi moduko bat marraztuko dugu erdian, baratzean topatutako osagaiez (makilak, harriak, hostoak...) lagunduta.

Talde bakoitzari bi elikagai banatuko dizkiogu, jatorri (bertakoa eta urrunekoa) eta ekoizpen-modua zein ontziratze-sistema ezberdinak dituztenak.

Denbora jakin batean (15'), ikasleek, nork bere taldean, honako galera hauek erantzunen dituzte:

Non ekoitzi dira? Kartoi-mehean idatziko dute, elikagaiaren izenarekin batera, eta mapan kokatuko dute. Horretarako, mapamundi bat eramanen dugu, erreferentzia bat izan dezaten.

Zer ibilbide egin dute gure mahaira iristeko? Koloretako harritxoak erabiliko dituzte gutxi gorabeherako bidea markatzeko.

Nola uste dute bidaiatzen dutela? Autoz, itsasontziz...

Ontziratutik datoz?, nola?

Zer alde daude batzuen eta besteen artean?, zeinek egiten du bide luzeena?, eta laburrena?

Bateratze-lana egingen dugu, era ordenatuan: talde bakoitzak bere erantzunen eta gogoeten berri emanen du, eta horiek alderatuko ditugu.

Zeinek sortzen dio kalte gutxien Lurrari?, eta gure osasunari? Zergatik?

Materialak:

- Jatorri ezberdineko elikagaiak. Bi, talde bakoitzeko.
- Koloretako harritxoak (kolore bat talde bakoitzeko).
- Koloretako kartoi meheak (kolore bat talde bakoitzeko).
- Errotuladoreak.
- Munduko mapa.

Baliabide gehigarriak

1. eranskina: Fitxa bat, lantegia egin ahala betetzekoa

Laboreak identifikatzea						
Izen arrunta	Landarearen zein atal aprobetxatzen dugu?					
	Şustrai	Zurtoina	Hostoak	Lorea	Fruitua	Haziak
Labore jangarrien zenbat espezie daude baratzean?						

Zer da nekazaritza ekologikoa?	
Landare lagungarriak	
Laboreez gain, zer landare mota gehiago daude? (esan bakarren bat)	
Animaliak lagun	
Intsektuen identifikazioa Zenbat intsektu mota topatu ditugu?	
Ba al dute non babestu? (Babeslekuak, loreak, habia-kutxak, harriak...)	
Lurzoruaren emankortasuna	
Zerekin ongarritzen dute baratze hau?	
Aipatu konpostagailuan topatutako 5 material	
Zenbat animalia mota ezberdin topatu ditugu konpostegian?	
Baratzean, zer beste osagai edo egitura topatzen ahal ditugu?	

2. eranskina: Ikus-entzunezko baliabideak, elikagaien eta nekazaritza ekologikoaren jatorriari buruz

<https://www.youtube.com/watch?v=gy2mY1yLZwY>

<https://www.youtube.com/watch?v=EDeo1kVJp4Y>

<https://www.youtube.com/watch?v=REM7LyU0cWI>

3. eranskina: Erakusketa

<http://alimentarelcambio.es/exposicion-alimentar-el-cambio/>